

BURUTU DA 2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO EZOHIKO DEIALDIA

Osakidetza II Euskara Planak agindutakoari jarraituz, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeke ezohiko deialdia onartu zen orain ia urtebete zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez. Horren bitartez, pazienteekiko harremanetan eguneroko lanean euskara normaltasunez erabiltzen duten baina orain arte dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten langileei aukera eman zaie. Horrela, langile horiek **Euska-**

ra Planaren partaide aktibo izatera igarotzea bilatu da.

Ezohiko deialdi honetan langile finkeok bakarrik izan dute parte hartzeke aukera, eta lehenik ahozko probak egin dira, proben ohiko hurrenkera aldatuta. Guztira, 361 hautagai onartu ziren lehen probarako. Azterketak urtarrilaren 30etik otsailaren 6ra egin ziren, Portugaleten, Donostian eta Gasteizen. Bertaratu zirenetatik 232k (% 83) gainditu zuten proba, eta, horren-

bestez, idatzizko probara deituak izan ziren.

Idatzizko probarako gaitzeko, prestakuntza eskaini zaie hautagaiei. Oro har, zerbitzu-erakundeek hartu dute azterketarako prestatzeko ardura, bai zuzenean, bai euskaltegiren baten bitartez. Ekainaren 26an egin zen idatzizko proba, Gasteizko Erizaintza Eskolan. 208 hautagaik egin zuten, eta horietatik 187k (% 90) gainditu dute azterketa, eta, beraz, 2. hizkuntza eskakizuna eskuratu dute.

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEAK AHOTSAREN BIDEZKO KONTROLA INSTALATU DU NEUROKIRURGIAKO OPERAZIO-GELAN

Ospitaleak teknologia berritzaile bat instalatu du neurokirurgiako operazio-gelan. Horren bidez, pazientearen informazio digitala eskuratu daiteke operazio-gelan dauden ekipoak ahoztu bakarrik erabiliz kontrolatuta. Aurrerapen garrantzitsua da asepsia-baldintza bereziki zorrotzak behar dituzten ospitaleko eremuentzat eta medikuntzako gailuentzat, jada ez delako beharrezkoa izango eremu esteriletik irtetea eta, ondorioz, kontaktu bidezko infekzioak prebenituko direlako.

Teknologia erabiltzaile-entzute naturala oinarritzen da, gailu optoelektrikoen laguntzarekin. Hau da, ahots bidezko kontrolaren bitartez sistema edo gailu bat erabili daiteke, informazioa sartzeko bestelako elementurik (saguak, teklatuak, ukimen-pantailak...) erabili behar izan gabe. Gailuak, gainera, ez du instalazio berezirik behar, eta sagu bat edo teklatu bat bezala konektatzen da.


ZIENTZIAPP, ZIENTZIA-EDUKIAK ESKAINTZEN DITUEN DOAKO APLIKAZIOA



Aplikazioak zientzia-eduki berriak eskaintzen ditu egunerok: zientzia eta teknologiari buruzko azken albisteak, bideoak eta audio-artxiboak, informazioa nonahi eta noiznahi jasotzeko, nahieran.

Eduki guztiak Elhuyar Zientzia erredakzioan aukeratu eta lantzen dira. Zientzia.eus webgunean ere argitaratzen dira. Horrez gain, zientzia eta teknologiaren inguruko ekitaldiaren berri ere ematen du, *Agendaren* bitartez.

Diseinu garbia eta erraza du, eta doan deskarga daiteke [Google Play Storen](https://play.google.com/store/apps/details?id=com.elhuyar.zientzia) zein [App Storen](https://apps.apple.com/ES/app/zientzia/id1444444444). Deskargatu aplikazioa eta izan zientzia eta teknologiari buruzko berritasunak, esku-eskura!



ANESTESIAKO ESKULIBURUA

Liburu honek ikasleentzako anesthesiologiaren oinarrien inguruko informazio-iturri izatea du helburu. Bertan 18 gai jorrotzen dira modu xume baina zorrotzean, espezialitate zabal honetan zehar lehen pausuak eman nahi dituztenei zuzenduta.

Kirurgiari zuzendutako anesthesiatik hasita, min kronikora arte, tartean politraumaren maneia alde batera utzi gabe, testu zabal honetan horien guztien eta gehiagoren inguruko zalantzak argitu ahal izango ditu irakurleak.



«Egia da proportzioan gurean itzulpenek pisu gehiago dutela sorkuntzak baino»

jabier agirre medikua

Jabier Agirrek urte asko daramatza osasungintzan euskarak izan behar duen tokia aldarrikatzen. Erretiroa hartu duen honetan, medikuak arlo horretan egindako lanak erreparatu eta etorkizunerako erronkak zedarritu ditu Osatuberrirentzat.

Medikua zara izatez, baina itzulpen gintzan ere asko aritua zara. Zenbaterainoko lotura dute bi diziplinek?

Osasunak berez ez du loturarik itzulpenarekin, baina medikuntza euskaraz landu nahi bada nahitaezkoa dugu itzulpengintza erabiltzea. Testuak falta dira, corpus teknikoa ere bai, eta hizkuntzari garrantzia eman nahi badiogu hori beharrezkoa da. Zoritxarrez, une honetan euskara ez dago beste hizkuntzen mailan osasungintzaren arloan.

Zenbait lekutan aritu zara osasungintza euskalduntzeko lanean. Zein izan da zure egitekoa?

Asko aldatu dira gauzak. Nik ikasketak 1977an amaitu nituen, eta hasieran ambulatorio batean egiten nuen lan. Orduan deitu zidaten UZEIkoek, osasungintzari buruzko hiztegia egin nahi zutela eta. Garai hartan dena egiteko zegoen eta segurtasun falta handia geneukan. UZEIn lantalde berezitua sortu zen hiztegiak egiteko, eta urteen poderioz hiru hiztegi atera genituen. Ordura arte, UZEIk diziplina bakoitzeko hiztegi bat ateratzen zuen, izan filosofia, matematika edo artea. Medikuntzan, baina, hiztegi bakarraren asmoa ezinezkoa zela ikusi genuen, biologian bezalaxe. Ikusi genuen espezialitateka egitea egokiagoa zela beste moduan baino. Alabaina, denborarekin eten egin zen proiektu hori, eta Euskalterm sortu zuten. UZEIko hiztegi guztiak hor integratu genituen, eta, gerora, beste hiztegi batzuk ere egin dituzte. Guztira, hamabost hiztegi daude orain, guztiak Euskaltermen integratuak.

Testuak ere asko idatzi dituzu.

Bai, hasieran dibulgaziokoak ziren gehienbat. Gero, ikusi zen kanpotik eskariak zeudela gida farmakologikoak-eta itzultzeko, eta horretan ere aritu ginen nahiz eta gero ez zuten argitaratu. Jaurlaritzarentzat ere zenbait itzulpen egin genituen, historia klinikoaren gainekoak, esaterako. GNS –

Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena– tartean. Itzulpen partzialak ere ugari egin ditugu Osakidetzarentzat; apur bat, itzulpengintza beharren araberaren landu da, eta beti egongo da zerbait euskarara itzultzeko, euskaraz sortzen dena huskeria delako.

Esan daiteke, beraz, beste hizkuntzen atzetik gabiltzala?

Zoritxarrez, bai. Ni konbentzituta nago euskaraz sor daitekeela, baina ez da gertatu. Salbuespenak salbuespen, beti gabiltza beste hizkuntzen arri-muan: OEEk –Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea– Agote saria sortu zuen, testu-liburuetarako balioko luketan testuei buruz-eta, baina orokorrean gutxi sortzen da. Neu ere ez naiz gai izan taxuzko ezer sortzeko, gehiago aritu naiz dibulgazioan, baina euskarak denetarik behar du, beste hizkuntzek bezalaxe. Egia da proportzioran gurean itzulpenek pisu gehiago dutela sorkuntzak baino.

Bete al dira hasieran euskaratzearen inguruan jarritako helburuak?

Aspaldi da Osakidetzaren sortu zela, eta baita Euskal Herriko Unibertsitatea ere: bertan ikasi genuen guk. Garai hartan medikuntzako irakaskuntza guztia gaztelaniaz zen, eta orduantxe hasi ziren Leioan biologiako eskola batzuk euskaraz ematen. Egun, biologiako karrera guztia egin daiteke euskaraz, baina medikuntzan ez. Ia 40 urte dira, eta inon ezin da ikasi euskaraz osorik. Beraz, noski, gure helburuak ez dira bete. Ez dakit borondate, asmo edo gogo kontua den, eta erraza da esaten beste leketan ere antzeko daudela, Kanadan esaterako; baina Euskal Herrian 40 urteren ostean medikuntzako ikasketak osorik euskaraz ez egotea izugarritzko amorrua ematen didan zerbait da.

Itzulpengintzan eta sorkuntzan egindako lanak ba al du erabilerririk egunerokoa?

Tira, osasungintzari dagokion material guztia kontuan hartzen badugu, handiagoa izan zezakeen. Ez dakit jendeak

badakien Euskaltermen oinarritzko hamabost espezialitatetako hiztegiak daudela eta bakoitzak 500 kontzeptutik gora biltzen dituela. Hor altxor handi bat dugu kontsultatzeko moduan, eta egia da agian ez zaiola eman behar adinako zabalkunderik hori jendearengana irits dadin. Badakit beti ezin dela ibili Euskalterm gora eta behera, baina, esaterako, hiztegiak aurkeztean, publizitate dezente egin beharko litzatekeela uste dut.

«Ez dakit jendeak badakien Euskaltermen oinarritzko hamabost espezialitatetako hiztegiak daudela eta bakoitzak 500 kontzeptutik gora biltzen dituela. Hor altxor handi bat dugu profesionalak kontsultatzeko moduan»

Terminologia lantzean garbizalekeriarik egon al da?

UZEIn ez da sekula garbizalekeriarik egon. Gertatzen dena da euskara bera beste parametro batzuekin neurtzen zela duela urte batzuk. Ez nuke esango medikuntzan garbizalekeriarik egon denik, nahiz eta badakidan beste alor batzuetan egon dela. Medikuntzan, irizpide nagusiak jendeak zuk diozuna ulertzea izan behar du; nik batez ere Gipuzkoako egoera ezagutzen dudana arren, iruditzen zait Basurtuko edota Gurutzetako mediku euskaldunek ere komunikazioari emango diotela garrantzia, garbizaletasuna baiter utzita.

Dibulgazioan asko aritu zara, prentsan, irradian, argitalpenetan (adibidez, Osatuzen)... Zer-nolako garrantzia dute horrelako lanek?

Nire ustetan, garrantzi ikaragarria dute. Maila jasoan dagoen zerbait herriar arruntarentzat jartzea da dibulgazioa, modu errazean uler eta erabil dezan. Askotan gutxietsi egiten da, baina lan garrantzitsua da gai guztietan, ez osasungintzan bakarrik. Ez dago gaizki jakitea mikrouhin-labe batek nola funtzionatzen duen, edo motor batek; hori da dibulgazioa. Zertarako balio du Zika birusa bolo-bolo erabiltzeak, gero zer den azaltzen ez bada? Bada, azaldu zer den, zer arrisku duen, non eta nola harrapatzen den... Eta hori euskaraz eginez gero terminologia zehazten ari zara, izan idatzian, irradian edo telebistan.

Nolakoa da euskararen egoera osasun-zerbitzuetan? Zein dira gabezia handienak?

Gabezia handiak ditu. Ia 40 urte pasatu direnean, egoera ez da oso ona. Badakit erresistentzia handiak egon direla, baita Osakidetzako zenbait langilearen partetik ere, baina erakunde horretan egon den jende euskaltzalearen indarra ez aprobetxatu izana beti kritikatuko dut. Esaterako, euskaraplan berandu abiatu zen, hizkuntza-eskakizunak berandu ezarri ziren eta oraindik batzuetan ez dira eskatzen... Apustu argi bat behar da eskakizunak medikuei ere eskatzeko, ez soilik administrazio-langileei.

Beharrezkoa al da itzulzaile-sare bat Osakidetzan?

Zalantzarik gabe. Beharrezkoa da itzulpen guztiak Osakidetzan zentralizatuta egotea. Egun, edozein arlotan daude baimen informatuak, eta horrek balio beharko luke zentro guztietarako. Baina hori gaztelaniaz ez da gertatzen, eta euskaraz are gutxiago. Itzulpen datu-base nagusi bat behar dugu zerbitzu guztietarako, izan ospitale handiak edo ospitale txikiak.

gramatika

HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

BOST MINUTUKO IKASTAROA

Era askotako pilulak daude. Horien artean ezagunena, noski, sendagai bat daukan ale txiki eta biribildua da, ahotik hartzen dena. Definizio hori aurkituko duzue Hiztegi Batuan begiratu zero, baina badira bestelakoak ere: prestakuntza-pilulak, esaterako.

Prestakuntza-pilulak iraupen laburrekoak izan ohi dira eta gai zehatz baten inguruko ezagutza di-da batean eskuratzeko modua eskaintzen dute: praktikoak eta arinak dira. Produktu ugari aurkezten dira formatu horretan, eta badira euskararen ezagutza zabaltzeko sortutakoak ere. Urrutira gabe, hortxe dugu Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiiboak zabaltzen duen *Euskararen kuku*.

Bada, bestalde, duela ia hamarkada bat ezkerotik, beste pilula bat, hainbat herri-langilek postontzian jasotzen dutena: *Bost minutuko ikastaroa*. Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-normalizazioko teknikari Jabier Oses Azurmendik sortua da eta normalean bi atal izaten ditu: batean gramatika-konturen bat azaltzen da eta bestean, gehienetan, literaturako edo idatzizko hedabideren bateko pasarte edo artikuluren bat. Hona, pixka bat laburtuta, harpidedunek hilaren 17an zer jaso zuten:

Gramatika

KOMA baten garrantzia:

Zer moduz, Jon?

Zer moduz Jon?

Animo gutxi geratzen zaigu oporrak hartzeko.

Animo, gutxi geratzen zaigu oporrak hartzeko.

KOMA nola erabili: [IVAPeko estilo liburua](#). 54. orrialdean

Pasartea

Horiexek izan ziren Errusiako Auzitegi Goreneko epailearen mezua osatzen zuten hiru hitzak. Hiru hitz, hiru baino ez, errugabe baten askatasuna galarazi eta hil arteko zigorraldia ezartzeko idatziak.

Izenez ezagutzen ez dugun idazkari batek jaso zuen ofizioa. Espero zuen; bazekien Auzitegi Goreneko epaileak nekez utziko zuela Ilych Ulyanov presoak kalera ateratzen. Baina gizon horrek kalean behar zuen... eta idazkariak hitz bat ere aldatu gabe, zerbait aldatu zuen.

Vladimir Ilych Ulyanov presoak kartzelatik atera zen. Izatez, hau izan zen Auzitegi Gorenetik heldu zen mezua... Hiru hitz, hiru baino ez... eta koma bat:

«Ez, bidali etxera»

<http://itxaurdi.blogspot.com.es/2007/12/koma-baten-garrantzia.html>

Bost minutuko ikastaroa, egun, Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren barruko ekimena da eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren oniritzia du.

Ikastaroa zure helbideren batean jaso nahi baduzu, eskatu hemen:

javi-oses@euskadi.eus

agenda

UDAKO EUSKARA-BARNETEGIAK

Uda honetan euskara-maila hobetu nahi duenarentzat.

[informazioa](#)



UPV/EHU-REN UDA-IKASTAROAK

Taste, Behaviour and health gastronomy tailerra, ingelesez.

Abuztuaren 29an, Donostian; goizean Miramar jauregian eta arratsaldean Basque culinary center-en.

[web-orria](#)

UEU, UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN UDA-IKASTAROAK

Bihondakinen konpostaren erabilera. Irailaren 30ean, Beran.

[web-orria](#)

KOMUNITATEKO OSASUNARI BURUZKO IV. FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

Lanek zeri buruzkoak izan behar duten eta gainerako xehetasunak jakiteko, kontsultatu lehiaketaren oinarriak. Lanak maiatzaren 20tik urriaren 28ra bitartean bidal daitezke. Epaimahaiaren erabakia Gasteizen jakinaraziko da, Osatzen jardunaldietan, azaroaren 17 edo 18an. Filmak edozein hizkuntzatan aurkez daitezke, baina erabilitako hizkuntza gaztelania edo ingelesa EZ den kasuetan, azpituak sartu behar dira bi hizkuntza horietako batean.

[oinarriak](#)

